Zumaiako Udala

2014IAKU0009-013-001

# 83. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2014ko uztailaren 23an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**
Arritokieta Gonzalez Elosua and..
Iñaki Ostolaza Esnal jn
Maitane Agirre Arrieta and.
Montse Arana Perez and.
Edurne Egaña Manterola and.
Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.
Xabier Gallastegi Idigoras, jn.
Aitor Leiza Alberdi jn
Isidro Fernandez Echave jn.
Eneko Agirre Maiora jn

**Ez bertaratuak**
Peru Fernandez-Arroyabe Txapartegi jn.
Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre

**EGUNEKO AZTERGAIAK**

# 1.- OGASUNA.-

## 1.1.- UDALAREN 7. KREDITU ALDAKETA, MUSIKA PATRONATUAREN 1. KREDITU ALDAKETA ETA KIROL PATRONATUKO 1. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) gaiaren berri eman du.

## 1.2.- 2013KO KONTU OROKORRA UDALBATZAREN ONESPENERAKO JARTZEA ETA ONARTZEA BIDEZKO BADA

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) kontu orokorra azaldu du. Udalarenarekin hasi du: balantze eta galdu-irabazi kontuak begiratuz inbentarioa egitea aurten 2014an bukatuko denez itxiera egin aurretik gehikuntzak egin beharko direla eta Finantza direktoetan Zumaiako Kirol Patronatuen eta Zumaia Lantzenen akzioak agertzen direla udaleko kontuetan. Galdu irabaziei dagokionez pertsonalaren gastuak gora egin duela hor daudelako 2012an abenduko aparteko ordainsaria 2013an ordaindu zelako; Eta inbertsioetan jaitsiera bat izan da, beraz, amortizazioetan ere bai.

Musika Patronatuari dagokionez, hemen ere ibilgetuetan jaitsi egin dela 2013an ez zelako erosketarik egin. Zordunetan 4.000€ko udalaren azkenengo ordainketa falta dela eta likidazioa txikitu egiten dela eta Fondo propioetan aurreko urteetako irabaziak banatzen dira. Galdu-Irabazien kontuan udalaren ekarpena oso garrantzitsua dela eta gastuak aurreko urteetakoen antzekoak dira baina ekarpenaren arabera aldatzen da urteko emaitza.

Kirol Patronatuari dagokionez, kirol patronatuko fondo propioetan 2012an egin zitzaion adskrizioa dago eta iazko irabazien banaketa; Aurten nabarmen egin duela gora inbertsioak eta beraz amortizazioak ere bai, kobratzeko dauzkan eskubide guztiak udalarenak direla eta 2013ko ekarpenaren azkenengo zatia duena da; Galdu-irabazietan aurten eman diogun ekarpena aldatu egiten da eta lehenengoz patronatua urte osoan egon denez martxan ezin da egin konparaketa 2012ko datuekin. Eta sarreretan ere berdina gertatzen dela aurreko urtekoarekin ezin baita konparaketarik egin, aurrenengo aldia delako urte guztia martxan dagoela.

San Juan Egoitzan 2013an ez da inbertsiorik egin eta amortizazioak ere bere horretan jarraitzen dute eta beraz ibilgetuen balioa jaitsi egiten da; Fondo propioetan dagoen mugimendu bakarra iazko emaitzaren banaketa dela; Galdu-irabazetan soldaten kostua igo da udalaren kasuan aipatu dugun arrazoi berdinarengatik; Amortizazioa 2012koaren antzekoa da; Funtzionamendu gastuak ere bai eta sarrerak igoera txiki bat izan dute, Transferentzi eta diru laguntzei dagokionez Foru Aldundiaren ekarpena igo egin dela eta udalarena gutxitu, horregatik 2013an aurreikusitako ekarpenaren erdia eman behar izan zion udalak

Azkenik, Zumaia Lantzeni dagokionez, kontu orokorretan sartu behar direla baita ere, eta salmentetan izan duten jaitsiera baita izakinetan ere bai, nabarmendu du.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du betiko kontua dela hona iristen garenean; likidazioa aurkeztu zenean ekainean azaldu zutela zeuzkaten desadostasunak, teknikoki ez dutela ezer esateko baina bai kontrol politikoari dagokionez eta zentzu horretan esan du politikoki ados ez daudela; kontu orokor honek islatzen duen exekuzioarekin ez daudela ados, hain zuzen ere.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:**

**Abstentzioak:**

**Erabakia**: 2013KO KONTU OROKORRA ONARTU DA.

----------------------------

## 1.3.- IRIZPENA:
## 2014KO UDALAREN AURREKONTUAREN 10.KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA, FRONTOIAREN DIRU-LAGUNTZA. 750.000 EURO JASOKO DITUGULAKO BEHAR DEN KREDITU GAIKUNTZA.

Iñaki Ostolazak (EH BILDU) gaia azaldu du; Aldundiak atera zuen diru laguntza kirol instalazioak egiteko, pleguak aztertu ondoren, proiektu bakar bat egokitzen zela pleguetara, frontoiarena, alegia. Halere, zeuden proiektu gehienak bidaltzea erabaki zutela esan du, diru gehiago jasotzeko. Azkenean, Zumaira

etorriko dira Aldunditik 750.000 € eta etorriko dira hiru urtetan banatuta: 2014ean 200.000 €; 2015ean 200.000€ eta 2016an 350.000 €. Orduan frontoia egin ahala obraren zertifikazioak bidaliko direla Aldundira eta diru laguntza horiek jasotzen joango gara. Orain aurkezten duten kreditu aldaketa diru laguntza horiek aurrekontuetara inkorporatzeko kreditu aldaketa bat dela eta era berean liberatzen denez diru kopuru hori aurrekontuko epigrafe berean, kreditu bat baliatzen da kirol instalazioetako izenburuarekin. Liberatutako diru kopuru horrekin 2014-2016 kirol instalazio plan bat aurrera eraman nahi dela esan du bukatzeko.

Edurne Egañak (EAJ-PNV) esan du bi gaia batera arrazoituko dituela. Batetik, harridura azaldu du konbenzituta daudelako diru laguntza bat beti finalista izaten dela eta diru laguntza baten bitartez jasotzen den dirua afektatua dela, kreditu afektatu baten ezaugarria duela eta ematen den erarako erabiltzen dena. Zalantzak sortzen zaizkiela kreditu liberazioarekin eta beste zerbaitetara erabili ahal izatea. Harridura areagotu egin zaiela entzun dutenean udal gobernutik pleguak aztertua proiektu bakarra egokitzen zela, frontoiarena, alegia; planteatzen den hau guztia oso zalantzagarria dela eta oinarri sendorik gabekoa. Kreditua habilitatu ondoren beste zerbait egiteko hori liberatzea, bermerik ez duela eta arriskutsua dela esan du.

Xabier Gallastegik (EAJ-PNV) galdetu du zelan esan duen Ostolazak obra ziurtagiriak bidali behar direla Aldundira baina plegu horretan ziurtagiriaz aparte fakturak ere eskatzen zirela bidaltzea, hori hirigintzan eurek aipatu zutela, eta oraindik hori airean zegoela Sukiak ez baitio bere buruari fakturarik, eta horren inguruan udal gobernuak eai argitu duen nola egingo den.

Iñaki Ostolazak (EH BILDU) esan du teknikoki eskatu zutela argitzez eta Aldunditik erantzun zutela hitzarmenean azaldu behar zuela eta Diputatu andereak duela eskumena erabakitzeko zein modutan egiten den hori.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 6 boto (5 EH BILDU, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:** 5 boto (EAJ-PNV)

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia**: 2014ko udalaren aurrekontuaren 10.kreditu aldaketa onartu da.

---------------------------

**1.4.- IRIZPENA: FRONTOIA ERAIKITZEKO 750.000 EURO JASOKO DIRELA-ETA, FRONTOIAK ZUEN HASIERAKO FINANTZAZIOATIK 750.000 EURO LIBERATZEKO ONARPENA EMATEA.**

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 6 boto (5 EH BILDU, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:** 5 boto (EAJ-PNV)

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia**: 2014ko udalaren aurrekontuaren 10.kreditu aldaketa onartu da.

---------------------------

## 1.5.- IRIZPENA: ZUMAIAKO UDALAREN DIRU-LAGUNTZATARAKO ORDENANTZA OROKORRAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA

Arritokieta Gonzalezek (EH BILDU) gaia azaldu du esanez diru laguntza ordenantza honetan zenbait aldaketa egitea proposatu zutela teknikoek eta batez ere Gizarte Zerbitzuetatik, eta zehazki bi aldaketa proposatu direla:
1.- Irizpenean aipatzen denean 10. artikuluan, gaizki dagoela, 11. artikulua dela, eta artikulu honetan bigarren parrafoan : „Egoitza edo ordezkaritza iraunkorra Zumaian duten pertsonek edo elkarteek diru-laguntza eskuratzeko garaian lehentasuna izango dutela“.

21. artikuluan „Goiko paragrafoan aipatutako mugarik gabeko ordainketak egin ahal izango dira aurrez, diru-laguntzak gizarte-ekintza eta nazioarteko lankidetza egitasmo edo programak finantzatzeko badira eta irabazi asmorik gabeko erakundeei –edo haien baitako federazio, konfederazio edo elkarteei– ematen bazaizkie. Era berean, bestelako erakunde onuradunekin ere berdin jokatu ahal izango da, baldin eta aldi horretan diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko nahikoa baliabide ez badute” horiek direla bi aldaketak.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:**

**Abstentzioak:**

**Erabakia**: Zumaiako udalaren diru-laguntzatarako ordenantza orokorraren aldaketa onartu da

----------------------------

## 2.- HIRIGINTZA.-

## 2.1.- IRIZPENA:

## ZUMAIAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BOSGARREN ALDAKETARI, 02 HA SAN TELMO AUZOKO 2.1. E.U.ARI DAGOKIONEZ BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA BIDEZKO BADA

Alkateak gaia azaldu du eta bozkatzeari ekin diote.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia**: Zumaiako Arau Subsidiarioen bosgarren aldaketari, 02 HA San Telmo auzoko 2.1. E.U.ari dagokionez behin betiko onespena eman zaio.

----------------------------

# 3.- GIZARTE ZERBITZUAK.-

## 3.1.- IRIZPENAK:

### 3.1.1.- MENDEKOEN ARRETARAKO ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATEKO, GFA ETA ZUMAIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HTZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA ETA ALKATEARI HITZARMENA SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

Alkateak gaia aurkeztu du. 2008ko lege baten ondorioz, non gizarteko prestazioak arautzen dituen eskumenak lege baten ondorioz etxez-etxeko arreta eta beste zenbait zerbitzu udalen eskuetan edo udalaren konpetentzien gain geratzen den zerbitzu bat izango litzatekeela esan du. Gaur egun 2008ko lege horretatik eratorrita bat-batean udalek ez dutela hori behar bezala finantzatzeko aukera eta Foru Aldunditik proposatu dutena izan dela epe aldi jakin batean hori ehuneko ehunean Udalaratzeko. Hitzarmen honen arabera lehenago Gipuzkoako Foru Aldundiak ehuneko ehun bere gain finantzatzen zuena, orain bi urteetan bi urteetarako ehuneko laurogeian finantzatuko du ela zerbitzu hori adierazi du.

Montse Aranak (EAJ-PNV) esan du lege berriak arautzen dituela prestazioak zeinek eman behar dituen eta etxez-etxeko laguntza zerbitzua udalari dagokiola, baina zaharren egoitza Aldundiari, orduan aldundia ari dela murrizten etxez-etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeko ekarpena eta aldiz egoitzaren kontua ez dela mugitzen, orduan eurek eskatzen dutela aurtengo urtarriletik indarrean jartzen baldin bada etxez-etxeko laguntzaren ekarpen hau edo hitzarmen berri hau, baita ere egoitzakoa ere izatea, aldi berean biak, nahiz eta bat udalaren alde izan eta bestea udalaren kontra, baina biak batera horregatik guk ezin dutela irizpena babestu.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 6 boto (5 EH BILDU, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 5 boto (5 EAJ-PNV)

**Erabakia**: Mendekoen arretarako etxeko laguntza zerbitzua finantzateko, GFA eta Zumaiako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena onartzea

----------------------------

## 3.1.2.- GIPUZKOAKO HEZIKETA KONPENTSATORIOKO ETA PRESTAKUNTZA OKUPAZIONALEKO KONTSORTZIOAREN ETA ZUMAIAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA ETA ALKATEARI HITZARMENA SINATZEKO GAITASUNA EMATEA.

Alkateak gaia aurkeztu du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:** 0 boto

**Abstentzioak:** 0 boto

**Erabakia**: Gipuzkoako heziketa konpentsatorioko eta prestakuntza okupazionaleko Kontsortzioaren eta Zumaiako Udalaren arteko hitzarmena onartu da.

---------------------------

## 3.2.- PROPOSAMENA:

## 3.2.1.- ZUMAIAKO GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI, LANKIDETZA PROGRAMAK GARATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEEN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

Alkateak gaia aurkeztu du eta bozkatzeari ekin diote.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:**

**Abstentzioak:**

**Erabakia**: Zumaiako gobernuz kanpoko erakundeei, lankidetza programak garatzeko diru-laguntzen oinarri arautzaileen hasierako onarpena eman zaio.

---------------------------

## 4.- PROPOSAMENAK.-

### 4.1.- BILDU UDAL-TALDEAK AURKEZTUTAKOA, JUAN CARLOS BORBOIKOAREN ABDIKAZIOAREN AURREAN ADIERAZPENA.

Alkateak gaia aurkeztu du adieraziz Juan Carlos I Erregea ez zela izan izendatua demokratikoki, herriak aukeratzeko aukerarik ez zuelako izan eta Felipe VIrekin beste hainbeste gertatu dela eta herritarrok aukeratzeko ze sistema politiko egituratu nahi dugun galdetu du aukeratzeko eskubiderik sartzen ez bada eta, bide batez, eskatu du aitortu dadila Euskal Herria ez duela nahi Espainiako egituraren barne, baizik eta gu herria garela eta hortaz, Euskal Errepublika baten alde egiten dutela aldarrikatu du.

Montse Arana (EAJ-PNV) esan su, alde batetik, Errege berriak hilabete bat daramala lanean edo hori entzun dutela behintzat, eta orduan proposamen hau pixkat beranduegi datorrela. Bestetik, esan du nahiz eta aurrekariekin erabat ados ez egon funtsean ados daudela bi puntuekin.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:**

**Abstentzioak:**

**Erabakia**: EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako adierazpena, Juan Carlos Borboikoaren abdikazioari buruzkoa onartu da.

---------------------------

### 4.2.- ELA SINDIKATUAK AURKEZTUTAKOA, UDALTZAINGOAREN AURRE-JUBILAZIOAREN INGURUKO ADIERAZPENA.

Alkateak proposamena irakurri du eta ondoren bozkatzeari ekin diote.

**ERABAKI ZATIA**

**Aldeko botoak:** 11 boto (5 EH BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Aurkako botoak:**

**Abstentzioak:**

**Erabakia**: ELA sindikatuak sustatutako adierazpena, Udaltzaingoaren aurre-jubilazioari buruzkoa onartu da.

----------------------------

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Zumaiako Udala

2014IAKU0009-013-001

# ACTA DE LA SESION PLENARIA nº 83

En la villa de Zumaia, siendo las diecinueve horas del día veintitrés de julio de dos mil catorce, se constituye en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial del Pleno del Ayuntamiento, al objeto de celebrar sesión extraordinaria con arreglo al orden del día previamente señalado y habiendo sido citadas en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la corporación:

| | |
|---|---|
| **Presidente:** | Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta |
| **Concejales:** | Sra. Arritokieta Gonzalez Elosua |
| | Sr. Iñaki Ostolaza Esnal |
| | Sra. Maitane Agirre Arrieta |
| | Sr. Montse Arana Perez |
| | Sra. Edurne Egaña Manterola |
| | Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua |
| | Sr. Xabier Gallastegi Idigoras |
| | Sr. Aitor Leiza Alberdi |
| | Sr. Isidro Fernandez Echave |
| | Sr. Eneko Agirre Maiora |
| **No presentes** | Sr. Peru Fernandez-Arroyabe Txapartegi |
| | Sr. Emiliano Cabañas Gonzalez |
| **Secretario:** | Gorka Urgoiti Agirre |

**ORDEN DEL DÍA**

# 1.- HACIENDA-

## 1.- DAR CUENTA DE LA SÉPTIMA MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA DEL AYUNTAMIENTO ASÍ COMO LA PRIMERA DEL PATRONATO DE MÚSICA Y LA PRIMERA DEL PATRONATO DE DEPORTES.

Arritokieta Gonzalez (EH-BILDU) ha informado sobre el tema.

## 1.2.- SOMETER LA CUENTA GENERAL DEL 2013 AL PLENO DE LA CORPORACIÓN PARA PROCEDER A SU APROBACIÓN, SI PROCEDE

Arritokieta Gonzalez (EH-BILDU) ha presentado la cuenta general, empezando por el Ayuntamiento; ha comentado que mirando el balance y las cuentas de pérdidas y ganancias y dado que el inventario se acabará de hacer en 2014, antes de hacer el cierre habrá aumentos y que en las finanzas directas aparecen las acciones del Patronato de Deportes y de Zumaia Lantzen en las cuentas del Ayuntamiento. En cuanto al balance de pérdidas y ganancias el gasto de personal ha aumentado porque en el año 2013 se abonó la paga extraordinaria correspondiente a diciembre de 2012; y en cuanto a las inversiones ha habido un descenso luego también en las amortizaciones.

En cuanto al patronato de Música los pasivos han sido menos dado que no se ha hecho ninguna compra en el año 2013. Referente a los deudores falta el último pago de 4.000€ del Ayuntamiento, la liquidación disminuye y en los fondos propios se reparten las ganancias de años anteriores. En el balance de pérdidas y ganancias la aportación de Ayuntamiento es muy importante y los gastos son parecidos a los del año pasado pero en base a la aportación cambia el resultado del año.

En lo que se refiere al Patronato de Deportes, está por un lado la adscripción que se le hizo a los fondos propios en 2012 y por otro el reparto de las ganancias del año pasado; Este año ha incrementado la inversión considerablemente, y la amortización también; todos los derechos a cobrar son del Ayuntamiento y es la última parte de la aportación del 2013; en las pérdidas y ganancias cambia la aportación que se le ha hecho y como es la primera vez que el Patronato está en marcha durante todo el año los datos no son comparables a los del 2012. Y con los ingresos pasa lo mismo, no se pueden hacer comparaciones con los años anteriores porque es la primera vez que está en marcha durante el año entero.

Residencia San Juan; durante el 2013 no se han hecho inversiones y las amortizaciones siguen igual, de modo que el valor de los inmovilizados baja; el único movimiento que hay en los fondos propios es el reparto de los resultados del año pasado. En el balance de pérdidas y ganancias ha aumentado el coste de los sueldos por la misma razón mencionada en el Ayuntamiento. La amortización es parecida a la del 2012; los gastos de funcionamiento también y los ingresos han tenido un pequeño aumento. En lo que se refiere a las transferencias y subvenciones ha aumentado la aportación de la Diputación Foral y ha disminuido la del Ayuntamiento, por esa razón la aportación del Ayuntamiento ha sido la mitad de la prevista para el 2013.

Por último, hablando de Zumaia Lantzen ha comentado que hay que incluirlo en la cuenta general y ha destacado la reducción que ha tenido en las ventas y en las existencias.

Edurne Egaña (EAJ-PNV) ha comentado que llegados a este punto estamos en la historia de siempre, cuando se presentó la liquidación en junio ellos ya plantearon los desacuerdos que tenían. Técnicamente no tienen nada que decir pero si en cuanto al control político, y en ese sentido comenta que políticamente no están de acuerdo; es decir que no están nada de acuerdo con la ejecución que refleja esta cuenta general.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5 EH-BILDU), 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR

**Votos en contra:**

**Abstenciones:**

**ACUERDO:** Se ha aprobado la cuenta general de 2013.

------------------------------

## 1.3.- DICTAMEN:
## APROBAR, SI PROCEDE, LA DÉCIMA MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS: SUBVENCIÓN DEL FRONTÓN. DEBIDO A QUE SE VAN A RECIBIR 750.000 EUROS PARA LA HABILITACIÓN DE CRÉDITO.

Iñaki Ostolaza (EH-BILDU) ha presentado el tema; La Diputación Foral ha concedido unas subvenciones para crear instalaciones deportivas, después de

analizar lo pliegos se ve que sólo hay un proyecto que encaje en los mismos, el del frontón. A pesar de todo decidieron mandar la mayoría de los proyectos con el fin de recibir más dinero. Al final, la Diputación destinará a Zumaia 750.000 euros, divididos en tres años: 200.000 euros en 2014, 200.000 euros en 2015 y 350.000 € en 2016. A medida que se vaya construyendo el frontón se mandarán los certificados de obra a la Diputación e iremos recibiendo dichas cantidades. La modificación de crédito que aquí se presenta es una modificación para incorporar dichas subvenciones al presupuesto, y al mismo tiempo como se libera esa cantidad en el mismo epígrafe del presupuesto se habilita un crédito con el nombre de instalaciones deportivas. Para finalizar ha comentado que con esa cantidad liberado se quiere llevar a cabo un plan de instalaciones deportivas para el período de 2014-2016.

Edurne Egaña (EAJ-PNV) ha comentado que argumentará dos temas a la vez. Por un lado ha mostrado su asombro porque ellos están convencidos que una subvención siempre es finalista y el dinero que se recibe como tal es afectado, que tiene la característica de un crédito afectado que se utiliza para lo que se concede. Que su asombro ha aumentado además cuando desde el gobierno municipal una vez estudiados lo pliegos dicen que hay un solo proyecto que encaje, el del frontón. Todo esto que se plantea es muy dudoso y carente de una base sólida. Después de habilitar el crédito usarlo para otro fin, creen que no tiene garantía y es peligroso.

Xabier Gallastegi (EAJ-PNV) toma la palabra y dice que Ostolaza ha comentado que hay que enviar los certificados de obra a la Diputación pero en los pliegos se recogía que aparte de los certificados hay que mandar también las facturas, este punto se comentó en la comisión de urbanismo y eso está todavía en el aire puesto que Sukia no va a hacer facturas para sí mismo y ha preguntado si el gobierno municipal ha aclarado este punto.

Iñaki Ostolaza (EH-BILDU) ha respondido que técnicamente solicitaron que se aclarara este punto y desde la Diputación les respondieron que esto tiene que quedar recogido en el convenio y la señora Diputada es la que tiene la competencia para decidir de qué manera se hace eso.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 6 (5 EH-BILDU, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 5 (EAJ-PNV)

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se aprueba la décima modificación de créditos

------------------------------

## 1.4.- DICTAMEN:
## APROBAR, SI PROCEDE, LA LIBERACIÓN DE LA FINANCIACIÓN INICIAL DEBIDO A QUE SE VAN A RECIBIR 750.000 EUROS PARA LA CONSTRUCCIÓN DEL FRONTÓN,

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 6 (5 EH-BILDU, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 5 (EAJ-PNV)

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se ha aprobado la modificación de crédito nª 10 del presupuesto municipal de 2014.

------------------------------

## 1.5.- DICTAMEN:
## APROBAR, SI PROCEDE, LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA GENERAL DE SUBVENCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA.

Arritokieta Gonzalez (EH-BILDU) ha presentado el tema diciendo que en esta ordenanza general de subvenciones se han hecho algunos cambios a propuesta de los técnicos y sobre todo desde Servicios Sociales se han propuesto dos cambios:

1.- En el dictamen lo que se recoge en el artículo nº10 no es correcto es el artículo nº 11, y en el 2º párrafo de ese artículo ; " tendrán preferencia para adquirir la subvención las personas o asociaciones que tengan su residencia o sede permanente en Zumaia"

2.- En el artículo nº 21 En el supuesto de subvenciones destinadas a financiar proyectos o programas de acción social y cooperación internacional que se concedan a entidades in fines lucrativos, o federaciones, confederaciones o agrupaciones de las mismas, así como a otras entidades beneficiarias siempre que no dispongan de recursos suficientes para financiar transitoriamente la

ejecución de la actividad subvencionadas, se podrán realizar pagos anticipados sin la limitación contenida en el párrafo anterior.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5EH-BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Votos en contra:**

**Abstenciones:**

**ACUERDO:** Se ha aprobado la modificación de la ordenanza general de subvenciones del Ayuntamiento de Zumaia.

------------------------------

## 2.- URBANISMO.-

## 2.1.- DICTAMEN:

## APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE, DE LA 5ª MODIFICACIÓN PUNTUAL DE LAS N.N.S.S. DE ZUMAIA REFERIDA A LA U.E. 2.1 AU 02 ARRABAL DE SAN TELMO.-

El alcalde ha presentado el tema y seguidamente se ha procedido a la votación.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5 EH-BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 0

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se ha dado la aprobación definitiva a la quinta modificación puntual de las N.N.S.S, de Zumaia referida a la U.E. 2.1 AU 02 Arrabal de San Telmo.

------------------------------

## 3.- BIENESTAR SOCIAL

### 3.1.- DICTÁMENES:

### 3.1.1.- APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA DFG Y EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA PARA LA FINANCIACIÓN DEL SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO PARA PERSONAS DEPENDIENTES Y FACULTAR AL ALCALDE PARA LA FIRMA DEL CONVENIO.

El alcalde ha presentado el tema. Ha comentado que como consecuencia de una ley del 2008 que regula las competencias en materia de servicios sociales, el servicio de ayuda a domicilio pasaría a ser de gestión y competencia municipal. Hoy en día los Ayuntamientos no tienen la posibilidad de asumir esa financiación como es debido, de manera que desde la Diputación se ha propuesto que se establezcan unos plazos para que los ayuntamientos vayan asumiendo al cien por cien este servicio. En base a este convenio lo que antes la Diputación financiaba al cien por cien ahora, ha manifestado que en dos años lo financiará en un ochenta por ciento.

Montse Arana (EAJ-PNV) ha comentado que la nueva ley establece a quién corresponde dar las prestaciones y el servicio de ayuda a domicilio queda en manos de los ayuntamientos, pero en cambio la residencia de ancianos corresponde a la Diputación. La Diputación está reduciendo su aportación al servicio de ayuda a domicilio pero en cambio no se está moviendo nada para el tema de la residencia. De modo que ellos lo que solicitan es que si esta nueva aportación para el servicio de ayuda a domicilio entra en vigor en enero, se aplique también para la residencia, que los dos temas se muevan al mismo tiempo, uno que es a favor del Ayuntamiento y otro en contra, pero que se desarrollen los dos al mismo tiempo. Por eso ellos no pueden apoyar este dictamen.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 6 (5 EH-BILDU, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 0

**Abstenciones:** 5 (E EAJ-PNV)

**ACUERDO:** Se ha aprobado el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumaia para la financiación del servicio de ayuda a domicilio para personas dependientes.

------------------------------

## 3.1.2.- APROBAR, SI PROCEDE, EL CONVENIO ENTRE EL CONSORCIO PARA LA EDUCACIÓN COMPENSATORIA Y FORMACIÓN OCUPACIONAL DE GIPUZKOA Y EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA Y FACULTAR AL ALCALDE PARA LA FIRMA DEL CONVENIO.

El alcalde ha presentado el tema y seguidamente se ha procedido a la votación.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5 EH-BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 0

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se ha aprobado el convenio entre el consorcio para la educación compensatoria y formación ocupacional de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zumaia.

-------------------------------

## 3.2.- PROPOSICIÓN:
## 3.2.1.- APROBACIÓN INICIAL, SI PROCEDE, DE LAS BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES PARA FINANCIAR PROGRAMAS DE COOPERACIÓN DE ORGANIZACIONES NO GUBERNAMENTALES DE ZUMAIA.-

El alcalde ha presentado el tema y seguidamente se ha procedido a la votación.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5 EH-BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 0

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se ha dado la aprobación inicial a las bases reguladoras para la concesión de subvenciones para financiar programas de cooperación de organizaciones no gubernamentales de Zumaia.

------------------------------

## 4.- PROPOSICIONES:

## 4.1.- PRESENTADA POR EL GRUPO MUNICIPAL BILDU SOBRE LA DECLARACIÓN DE LA ABDICACIÓN DE JUAN CARLOS DE BORBÓN

El alcalde ha presentado el tema manifestando que Juan Carlos de Borbón no fue nombrado democráticamente dado que el pueblo no tuvo la opción de elegirle, tal y como ha sucedido con Felipe VI. Se ha preguntado que tipo de sistema queremos crear si en el mismo no contemplamos el derecho a decidir y a añadido que se reconozca que Euskal Herria no quiere estar dentro de la estructura de España, sino que nosotros somos un pueblo, que está a favor de una república vasca.

Montse Arana (EAJ-PNV) responde que por una parte, en nuevo rey lleva en el cargo un mes, por lo que saben ellos, por lo que esta propuesta llega un poco tarde. Por otro lado aunque no están totalmente de acuerdo con lo comentado en los antecedentes, si que están de acuerdo con los dos puntos.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5 EH-BILDU, 5EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 0

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se ha aprobado la proposición presentada por el grupo EH-BILDU, sobre la abdicación de Juan Carlos de Borbón.

------------------------------

**4.2.- ESCRITO PRESENTADO POR EL SINDICATO ELA, EN RELACIÓN A LA PREJUBILACIÓN DE LA POLICÍA MUNICIPAL.**

El alcalde ha leído la propuesta y seguidamente se ha pasado a votar.

**PARTE RESOLUTIVA**

**Votos a favor:** 11 (5 EH-BILDU, 5 EAJ-PNV, 1 ARALAR)

**Votos en contra:** 0

**Abstenciones:** 0

**ACUERDO:** Se ha aprobado la propuesta presentada por el sindicato ELA, en relación a la prejubilación de la policía municipal.

------------------------------

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las diecinueve horas y cuarenta y cinco minutos de la tarde y yo, el Secretario , doy fe.

El Secretario